



Esp. kodea: 2017SAPL0009

Gaia: PLENOA 2017/11/07
Hasiera eguna: 2017/10/30

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2017ko azaroaren 7a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2017ko urriaren 3a egindako bileraren akta onartu du.

2.- CESPA SA” PROPOSAMENA 2017KO APIRILAREN 30AREN ONDOKO LEHENENGO URTERAKO BIDE GARBIKETAKO ZERBITZUAREN KANONA EGOKITZEKO

Udal Plenoak, aho batez, erabaki du onartzea “Cespa, SA” enpresaren proposamena, - 12.843,21€koa aplikatuko dena zerbitzuaren ezaugarriak eta baliabideak mantentzen diren bitartean, eta/edo kale garbiketa kontratu berria adjudikatu arte, eta gehienez, urte beteko (2017-5-1/2018-4-31) iraupena izango lukeena.

3.- “AGITAX” (GIPUZKOAKO TAXI ELKARTEA); 2018RAKO HIRI-TARIFA PROPOSAMENA.

Udal Plenoak, aho batez, erabaki du onartzea “AGITAX” elkarteak aurkezturiko auto-taxiaren 2018ko hiri tarifak, taula honetan zehazten direnak:

	BANDERA JAISTEA	EGINDAKO KM	ITXARON ORDUA
I TARIFA EGUNEKOA, LANEGUNEAN*	3,5693 €	1,1181 €	21,3538 €
II TARIFA GAUEKOA/ JAIEGUNEAN	3,5693 €	1,7834 €	33,5680 €

4.- BAKE EPAILEA ETA HAREN ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Udal Plenoak, aho batez onartu du. izendatzea **Itzasne Otaduy Perez de Mendiguren** andrea Arrasateko udalerriko bake epaile eta **Maddalen Arregi Askasibar** bake epaile ordezkoa.

5.- ARRASATEKO HONDARRIBIA ETA MAKATZENA KALEEN ARTEKO IGOGAILU



Esp. kodea: 2017SAPL0009

Gaia: PLENOA 2017/11/07

Hasiera eguna: 2017/10/30

BERRIAREN PROIEKTUARI GAUZATZEKO BEHARREZKO LURRAK ZUZENEAN OKUPATZEKO PROPOSAMENA.

Udal Plenoak, aho batez, onartu du okupatzea zuzenean, exekutatzeko “Igogailu Berriaren Proiektua Hondarribia eta Makatzena kaleen artean Arrasaten”, lursail hauek, hemen zerrendatzen direnak eta titular hauenak:

6.- KREDITUAK ALDATZEKO ESPEDIENTEA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA.

Osoko bilkurak aldeko 18 botorekin (EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EE) eta 3 abstentziorekin (Baleike eta Irabazi) erabaki du onartzea 2017ko Aurrekontuaren Kreditu Aldaketaren espedientea.

7.- BIDAIARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUAREN ALDAKETA.

Osoko bilkurak aho batez erabaki du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazio eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzekeko erregelamenduak aurre ikusten duen bidaien dohakotasuna 5 urtetik 6 urtera aldatzea

8.-2017KO AZAROAREN 25, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO EGUNAREN INGURUKO MOZIOA, IRABAZI UDAL TALDEAK AURKEZTUA

Aurkeztutako mozioa ez da onartu aldeko 3 boto (Baleike eta Irabazi) kontrako 11 (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta 7 abstentziorekin (EH Bildu).

9.- KATALUNIako ERREPUBLIKA AITORTZEKO MOZIOA, EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA.

Aldeko 7 boto (EH Bildu), kontrako 4 (PSE-EE eta Irabazi) eta 10 abstentziorekin (EAJ-PNV eta Baleike), EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa onartua izan da.

10.-KATALUNIAREN BURUJABETASUNA AITORTZEKO MOZIOA, EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUA.

Aldeko 15 boto (EAJ-PNV eta EH Bildu) eta kontrako 6 botorekin (PSE-EE, Baleike eta Irabazi) onartua izan da EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa.

Arrasaten, 2017ko azaroaren 11ean

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta